



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA
HEZKUNTZA ESKAINTZAREN PLANGINTZA



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

MUSIKA ETA DANTZA HEZKUNTZARA BIDERATUTAKO ESKAINTZA

I. MAILA EDO KONTAKTUKOA

DESKRIBAPENA

Haurren nortasunaren garapen orekatua sustatuko da, irakaslearekiko eta gainerako ikaskideekiko interakzioaren bidez, gorputz-jarduera eta zentzumenak baliatuta. Bere buruaren kontzientzia hartuko du, inguruko pertsonekin eta gauzeekin harmonian bizi den izakitza hartuta. Pixkanaka, bost urtetik aurrera, musikaren eta dantzaren jardura espezifikoagoekin harremanetan jarriko da, bere gustuekin eta gaitasunarekin bat datorren espezialitatean hasteko aukera hartu ahal izateko II. mailara sartzean.

I. mailako konpetentziak Eskolaren Curriculum Proiektuan (ECP) ezarritakoak izango dira.

II. MAILA EDO ESPEZIALITATE HASTAPENA

IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA				
I. MAILA (0 urtetik 7urtera bitartekoentzat)				
Kurtsoa	Espezialitatea-Ikasgaia	Asteko klase-orduak	Ratioa	Promozioa
0.1.-1 urte	Musika tailerra (haurren arduradun batek lagunduta)	60 min. guztira (saio 1ean)	10 gehienez	automatikoa
0.2.-2 urte				
0.3.-3 urte		Musika tailerra	60 min. guztira (2 saiotan)	
1.1.-4 urte	Musika/Dantza tailerra	60 min. guztira (2 saiotan)	M-12 gehienez D-15 gehienez	
1.2.-5 urte	Musika/Dantza tailerra	90 min. guztira (2 saiotan)	M-12 gehienez D-15 gehienez	
1.3.-6 urte	Musika/Dantza tailerra	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	
1.4.-7 urte	Musika/Dantza tailerra	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	
	Instrumentuarekiko hastapena	30 min. guztira (saio 1ean)		

DESKRIBAPENA

Maila honetan hasteko, gutxienez ikasgai nagusi batean matrikulatu beharko da, hau da, instrumentua, kantu bakarlaria, kantu korala edo dantza. Musikaren eta dantzaren praktikak norberaren nortasuna eta sentsibiltatea adierazteko eta garatzeko beste elementu gisa definituko dira. Alderdi tekniko irakasleak bultzatuko du, ikasleen adierazkortasuna hobetzeko tresna gisa soilik.

II. maila amaitzean lortu beharreko konpetentziak aukera eman beharko du III. mailako talde batean modu autonomoan sartzeko, ikaslearen ezaugarrien arabera. Konpetentzia maila hau duten ikasleak 3. mailan matrikulatuko dira.

II. mailako konpetentziak Eskolaren Curriculum Proiektuan (ECP) ezarritakoak izango dira.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA				
II. MAILA (8 urtetik hasita adin mugarik gabe)				
Kurtsoa	Espezialitatea-Ikasgaia	Asteko klase-orduak	Ratioa	Promozioa
1. zikloa				
2.1. 2.2.	Musika hizkuntza	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	ebaluazio jarraitua
	Instrumentua edo bakarkako kantua	30 min. guztira (saio batean)	1	
	Talde instrumentala	30-60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Dantza	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	
2. zikloa				
2.3. 2.4.	Musika hizkuntza	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	ebaluazio jarraitua
	Instrumentua edo bakarkako kantua	30 min. guztira (saio 1ean)	1	
	Talde instrumentala	30-60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Dantza	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	
	Abesbatza	90 min. guztira (2 saiotan)	malgua	
3. zikloa				
2.5. 2.6.	Musika hizkuntza	90 min. guztira (saio 1ean)	15 gehienez	ebaluazio jarraitua
	Instrumentua edo bakarkako kantua	30 min. guztira (saio 1ean)	1	
		30-60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Talde instrumentala	60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
		Dantza	90 min. guztira (2 saiotan)	

II.MAILako Musika Hizkuntzako klase-orduen iraupena: Eskolak klaseen iraupena taldearen tamainaren arabera egokituko du. Ikasle bakarra dagoenean, klaseak 30 minutukoak izango dira; 2 edo 3 ikasleko taldeetan, 45 minutukoak; 4 edo 5 ikasleko taldeetan, 60 minutukoak; eta 6 ikasletik gorako taldeetan, 90 minutukoak. Antolaketa hori talde txikietan irakaslearen arreta pertsonalizatuagoa delako ezartzen da; izan ere, ikasle bakoitzaren jarraipena hurbilagoa izaten da, eta ikaskuntza-prozesua eraginkorragoa.

Instrumentua (panderoa izan ezik) eta **kantu** espezialitateak egiteko, **ezinbestekoa** izango da **Musika Hizkuntza** ikasgaiko **2.1** eta **2.2. mailak** egitea. Musika-hizkuntza beste nonbaiten egin bada, ziurtagiria aurkeztu beharko da.

OINARRIZKO MAILAREN DIPLOMA

- a) Instrumentuaren Oinarrizko Mailako Diploma lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira:
- II. mailako ikasgai guztiak gainditzea.
 - Abesbatzako 2 kurtso egitea.
 - Ikasturtean zehar, Eskolak antolatutako ikasleei dagozkien Talde Jardueren ekitaldietan parte hartzea. Gehienez ere ez-etortze bakarra onartuko da.
- b) Dantzaren Oinarrizko Mailako Diploma lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira:
- II. mailako ikasgai guztiak gainditzea.
 - Ikasturtean zehar, Eskolak antolatutako ikasleei dagozkien Talde Jardueren ekitaldietan parte hartzea. Gehienez ere ez-etortze bakarra onartuko da.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

III. MAILA EDO ESPEZIALITATE FINKAPENA

DESKRIBAPENA

Maila honetan hasteko, ikasleak II. maila gaindituta izan beharko du edo maila honetako irakaskuntza era egokian jarraitzeko konpetentzia-maila egiaztatu beharko du proba baten

bidez. instrumentu, kantu edo dantzako interpretazioan lortu beharreko konpetentzia-maila Eskolako taldeetan parte hartzeko beharrezkoa dena izango da, taldearen kalitateari lagunduko dioten segurtasun- eta domeinu-balioak emanaz. Era berean, gai izango da banakako jardueretan eta zenbait mailatako formatuetako interpretazio-taldeetan parte hartzeko, eskuratutako ezagutzen eta prestakuntza-maila horren arabera.

III. mailako konpetentziak Eskolaren Curriculum Proiektuan (ECP) ezarritakoak izango dira.

IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA				
III. MAILA				
Kurtsoa	Espezialitatea-Ikasgaia	Asteko klase-orduak	Ratioa	Promozioa
1. zikloa				
3.1. 3.2.	Harmonia eta analisisa	60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	ebaluazio jarraitua
	Instrumentua edo bakarkako kantua	30 min. guztira (saio 1ean)	1	
	Talde instrumentala	30-60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Abesbatza	60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Dantza	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	
2. zikloa				
3.3. 3.4.	Harmonia eta analisisa	60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	ebaluazio jarraitua
	Instrumentua edo bakarkako kantua	30 min. guztira (saio 1ean)	1	
	Talde instrumentala	30-60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Abesbatza	60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Dantza	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	
3. zikloa				
3.5. 3.6.	Harmonia eta analisisa	60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	ebaluazio jarraitua
	Instrumentua edo bakarkako kantua	30 min. guztira (saio 1ean)	1	
	Talde instrumentala	30-60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Abesbatza	60 min. guztira (saio 1ean)	malgua	
	Dantza	90 min. guztira (2 saiotan)	15 gehienez	
HARMONIA ETA ANALISIA: Eskolak klaseen iraupena taldearen tamainaren arabera egokituko du. Ikasle bakarra dagoenean klaseak 30 minutukoak izango dira; 2 edo 3 ikasleko taldeetan, 45 minutukoak; 4 ikasleko gorako taldeetan, 60 minutukoak. Antolaketa hori talde txikietan irakaslearen arreta pertsonalizatuagoa delako ezartzen da; izan ere, ikasle bakoitzaren jarraipena hurbilagoa izaten da, eta ikaskuntza-prozesua eraginkorragoa.				



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

IV. MAILA EDO ESPEZIALITATE HOBETUNTZA

DESKRIBAPENA

Lehia-muga bakarra interesa, dedikazioa eta gaitasuna da. Gaitasun hori, oro har, Eskolako interpretazio-taldeetan (musikalak edo dantzakoak) parte hartuz sustatuko da.

Maila honetan sartzeko, ikasleak III. maila gaindituta izan beharko du edo maila honetako irakaskuntza era egokian jarraitzeko konpetentzia-maila egiaztatu beharko du proba baten bidez.

IV. mailako konpetentziak Eskolaren Curriculum Proiektuan (ECP) ezarritakoak izango dira.

TALDEKO IRAKASKUNTZAK

DESKRIBAPENA

Taldeko irakaskuntzek, bai ahots-taldeek, bai instrumentu-taldeek, bai dantza-taldeek, aukera ematen diete Eskolako ikasleei beren musika- eta dantza-prestakuntzaren esanahia ulertzeko, talde baten barruan parte hartzeko aukera ematen baitiete. Laburbilduz, talde-jarduerak garrantzi handia dute eskolaren bizitzan, eta proiektu kultural baliotsua egiten dute; izan ere, jarduera horiek udalerrri eta eskualde mailan irudikatzen dituzte, beste eskola, talde eta erakunde batzuekin trukeak sustatzen dituzte, eta musika eta dantza garatzea ahalbidetzen dute, bandak, orkestrak, abesbatzak, dantza-taldeak eta askotariko zale-taldeak eratuz.

TALDEAK

- Abesbatzak
- Dantza Taldeak
- Soka Taldeak
- Folk Taldeak
- Musika Bandak
- Musika modernoko konboak
- Ganbera-musikako talde anitzak

IRAKASKUNTZA INDARTUA

DESKRIBAPENA

Musika Eskolaren helburuetako bat ikasleei ikasketa arautuetan sartzeko behar dituzten irakasgaiak ematea da. Hala ere, aukera horri heldu nahi dion ikasleak nolabaiteko gaitasun eta bokazio berezia adierazi beharko ditu. Gainera, ikasleak instrumentuko tutorearen eta Eskolako zuzendariaren onespenez izan beharko ditu.

Aukera hau Instrumentu-espezialitateko II. eta III. mailetako ikasleei zuzenduta dago.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

ONGIZATE SOZIAL, FISIKO ETA EMOZIONALERA BIDERATUTAKO ESKAINTZA

Eskaintza mota hau talde-lanean oinarritzen da. Saio horietan, musikaren eta mugimenduaren bidez, hainbat alderdi lantzen dira, hala nola koordinazioa, memoria, psikomotrizitatea, emozioak, sentimenduak, etab. Horiek guztiak pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute, bai fisikoki, bai emozionalki. Ez du axola zer musika edo dantza mota aukeratzen den; nolanahi ere, eragin positiboa izango du taldeko jardura hori egiten dutenen osasun mentalean. Tresna bikainak dira emozioak askatzeko, estresa eta antsietatea murrizteko eta auto-estimua areagotzeko. Gainera, interakzio soziala sustatzen da, talde batean parte hartzeak pertsonen arteko harremanak ezartzea eta lotura berriak sortzea ahalbidetzen du.

JARDUEREN PLANGINTZA		
TALDEAK	TALDEKIDEAK	ASTEKO SAIOAK
Helduen dantza taldeak	Dantzarako zaletasuna duten helduak	90 min. guztira (2 saiotan)
Helduen musika tailerrak	Musikarako zaletasuna duten helduak	90 min. guztira (2 saiotan) ikasturte osoan
	San Jose Egoitzako egoiliarak	60 min. guztira (saio 1ean) ikasturte osoan
	“Bizipoza” taldeak	60 min. guztira (hilean behin) ikasturte osoan